

## AZKUNA ZENTROAK CABELLO/CARCELLER KOLEKTIBOAREN “AHOTS BAT ERAUSORENTZAT. TRANS GARAI BATERAKO EPILOGOA” ERAKUSKETA AURKEZTU DU

- Zentroaren erakusketa-ekoizpen berri honek kontakizun historikoaren eraikuntza eta queer eta trans politika garikideak harremanetan jartzen ditu. Bere diziplinarteko lanaren bidez, Cabello/Carcellerrek instalazioa, performancea, fikziozko kontakizuna eta bideoa erabiltzen ditu ikusizko praktiketako irudikapen hegemonikoak zalantzan jartzeko eta alternatiba kritikoak proposatzeko.
- Paul B. Preciado filosofo eta arte-komisarioa da proiektuaren komisarioa, eta Zentroko erakusketa-aretoan egongo da ikusgai martxoaren 10etik irailaren 25era arte.
- Helena Cabello (Paris, 1963) eta Ana Carceller (Madril, 1964) artistek osatutako Cabello/Carceller kolektiboak Erasoren beste erretratu bat egin du proiektu artistiko honetarako, trans pertsonaia berrien galería batek interpelatzen duena.
- Erakusketa-proiektua osatzen da jardueren programa publiko batekin, erakusketaren katalogoarekin eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako bisita-tailerren hezkuntza-programa batekin.

---

(Bilbo, 2022ko martxoaren 10a). Azkuna Zentroak, Bilboko Udalaren Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak, “Ahots bat Erasorentzat. Trans garai baterako epilogoia” produkzioaren ekoizpena inauguratu du. Cabello/Carceller (Helena Cabello eta Ana Cerceller) kolektiboa artisitkoaren lana da, Paul B. Preciadok komisariatuta. Zentroko

erakusketa berri hau martxoaren 10etik irailaren 25era egongo da ikusgai erakusketa-aretoan.

“Una voz para Erauso” proiektuak kontakizun historikoaren eraikuntza eta queer eta trans politika garikideak harremanetan jartzen ditu. Diziplina arteko lanaren bidez, Cabello/Carceller-ek instalazioa, performancea, fikziozko kontakizuna eta bideoa erabiltzen ditu, praktika bisualetako irudikapen-modu hegemonikoei buruz galderak egiteko eta alternatiba kritikoak proposatzeko.

Artistek aurkitu zuten erretratu liluragarri bezain ezohiko bat da proiektuaren abiaburua: Juan van der Hamen-ek (ziurrena) Espainiako itsas armadako alferrez gisa jantzitako Katalina Erausori 1626an egin ziona, gaur egun Kutxa bildumakoa dena. Erauso 1592an jaio zen Donostian, emakumezko sexua esleitu, eta Katalina izena eman zioten. Sarritan “moja alferrez” izenez da ezagunagoa, neurri batean, bere autobiografiari esker, hor, “gizon gisa jantzita” komentutik ihes egin zuen neska gazte baten abenturak kontatu baitzituen, gero soldadu eta merkatari modura Espainiako inperioak Txiletik Mexikora kolonizatutako lurretan ibili zenarenak (besteak beste, Francisco Loyola, Juan Arriola, Alonso Díaz Ramírez de Guzmán...eta Antonio Erauso izenak hartuta).

### “Lehen trans erretratua”

Erakusketaren komisario **Paul B. Preciadok** nabarmendu duenez, “gizon gisa jantzitako Erausoren erretratua arte errenazentistaren historiako lehen erretratu “trabestizat” har datieke”, nahiz eta nozio hori anakronikoa izan, XVIII. mendera arte ez baita existitzen.

Baina, argitzen duenez, Erauso, bere erretratua bezala, itzalak dituen irudi bat da. “Olio-pinturaren atzealde beltz-beltzean aurpegi zorrotz bat agertzen da, baina begirada kezkarriki gozoa duena, eta, hala, ez dago aukerarik maskulinoztat edo femeninoztat jotzeko. Alabaina, maputxeen genozidioan inplikaturik egon zenez eta merkatu kolonialean izan zuen jarreraren ondorioz, figura deserosoa da trans historian”. Horregatik, argi-ilunarena da erakusketaren estetika, Erausoren erretratuarena bezala.

Cabello/Carceller-ek Erausoren “erretratu” berri bat egin dute proiektu artistiko honetarako, eta trans pertsonaia berrien galeria batek interpelatu du. Azkuna Zentroak ekoiztutako ikus-entzunezko lan hau Doxa Produzioak-ekin filmatu da, Alberto sin Patrón izan da jantzien diseinatzailea eta Marsego arduratu da musikaz.

Erakusketa erretratuen galeria analogiko-digital gisa eraiki da, non Erausok (bai 1626ko erretratu historikoak eta kopia, bai Cabello/Carceller-en erretratu berria) Cabello/Carceller-en aurreko lanaren beste irudikapen batzuekin bat egiten duen, besteak beste, lan hauekin: *Autorretrato como fuente*, 2001ekoa, *Archivo: Drag Modelos* (2007 – prozesuan), *Movimientos para una manifestación en solitario* (2021) eta *Lost in Translation\_un poema performativo* (2016).

Erakusketa-proiektua osatzen da jardueren programa publiko batekin, erakusketaren katalogoarekin eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako bisita-tailerren hezkuntza-programa batekin.

## CABELLO / CARCELLER

Cabello / Carceller laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran hasi ziren elkarlanean, praktika bisualetan generoa eraikitzeke modu hegemonikoez galdekatzeko asmoz, eta queer jarreretatik alternatiba kritikoak proposatuz. Beren proiektu artistikoak uztartzen dituzte ikerketarekin, idazketarekin, komisariotzarekin eta irakaskuntzarekin. 2015ean beren lana aukeratu zuten Veneziako 56. Bienaleko Espainiako Pabiloirako. Bakarkako erakusketetan erakutsi duten lana, besteak beste, MUACen (Mexiko Hiria, 2019), Madrilgo CA2Men (2017), Vigoko MARCOen etan Valentziako IVAMen (2016), eta Danimarkako, Filadelfiako, Madrilgo eta Buenos Airesko arte-zentroetan. BEren proiektuak erakusketa kolektiboetan era erakutsi dira: Parisko Pompidou Zentroan (2017), Bartzelonako MACBAn (2020), Tranziten (Bratislava, 2018), Museo da Electricidade-en (Lisboa, 2015), MNCARSen (Madril, 2013), Casino Luxembourg-en eta New Yorkeko Brooklyn Museum-en (2007). *re.act feminism. A performing archive* artxioboaren parte dira, eta *Art and Queer Culture* (Phaidon Press) eta Jack Halberstamen *The Queer Art of Failure* (Duke University Press) argiltapenetan agertzen dira, besteak beste, baita egile beraren *Female Masculinity* liburuaren gaztelaniazko bertsioaren hitzaurrean ere.

## PAUL B. PRECIADO

Paul B. Preciado filosofoa, arte-komisarioa eta idazlea da. Ezaguna da nazioartean gorputzaren , generoaren eta sexualitatearen politikei buruz egin duen lanagatik. Fullbright beka jaso zuen; lehenik, Filosofia eta Generoaren Teoria ikasi zuen, New Yorkeko New School for Social Research-en, eta, bertan, Jacques Derrida-ren eta Agnès Heller-en ikaslea izan zen; gero, Princeton University-n Arkitekturaren Teorian dokotatu zen. Beste zeregin instituzional batzuen artean, Bartzelonako Museu d'Art Contemporani-n Programa Publikoen eta Ikasketa Independentteen Programaren zuzendaria izan da, baita Programa Publikoen komisarioa dokumenta 14 Kassel eta Atenasen ere, eta Taiwango Pabiloiaren komisarioa Venezian, Shu Lea Cheang artistarekin. Gorputzaren Filosofia irakasten du New York Unibertsitatean, eta Europako beste unibertsitate batzuetan. *Manifesto Contra-sexual; Testo Yonqui; Sexo, drogas y biopolítica; Pornotopía; Un Apartamento en Urano; eta Yo soy el monstruo que os habla liburuak egin ditu*, denak Anagramak argitaratuak.

## ERAKUSKETAREN FITXA TEKNIKOA

**Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epilogo**

**Cabello/Carceller**

**Komisarioa: Paul B. Preciado**

- Martxoaren 10etik irailaren 25era
- Erakusketa aretoa. Sarrera doan.
- Erakusketaren irudia: <https://drive.google.com/drive/folders/1P70pfb0-GFk8lwFgQu5YXIYnWG7Y05Kk?usp=sharing>

Laguntzaile:



## **AZKUNA ZENTROA PRESENTA LA EXPOSICIÓN “UNA VOZ PARA ERAUSO. EPÍLOGO PARA UN TIEMPO TRANS” DEL COLECTIVO CABELLO/CARCELLER**

- La nueva producción expositiva del Centro pone en relación la construcción del relato histórico con las políticas queer y trans contemporáneas. A través de su trabajo interdisciplinar, Cabello/Carceller utiliza la instalación, la performance, el relato de ficción y el vídeo para cuestionar las representaciones hegemónicas en las prácticas visuales y proponer alternativas críticas.
- El proyecto está comisariado por el filósofo y comisario de arte Paul B. Preciado, y se mostrará en la Sala de Exposiciones del Centro del 10 de marzo al 25 de septiembre.
- El colectivo Cabello/Carceller formado por las artistas Helena Cabello (París, 1963) y Ana Carceller (Madrid, 1964) ha elaborado para este proyecto artístico un nuevo “retrato” de Erauso que es interpelado por una galería de nuevos personajes trans.
- El proyecto expositivo se completa con un programa público de actividades, el catálogo de la exposición y un programa educativo de visitas-taller, dirigido a centros escolares de secundaria.

---

(Bilbao, a 10 de marzo 2022). Azkuna Zentroa, Centro de Sociedad y Cultura Contemporánea del Ayuntamiento de Bilbao, inaugura la muestra “Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans” del colectivo artístico Cabello/Carceller (Helena Cabello y Ana Carceller) y comisariado por Paul B. Preciado. La nueva exposición del Centro se mostrará en la Sala de Exposiciones entre el 10 de marzo y el 25 de septiembre.

“Una voz para Erauso” pone en relación la construcción del relato histórico con las políticas queer y trans contemporáneas. A través de su trabajo interdisciplinar, Cabello/Carceller utiliza la instalación, la performance, el relato de ficción y el vídeo para cuestionar las representaciones hegemónicas en las prácticas visuales y proponer alternativas críticas.

El proyecto se inició con el encuentro de las artistas con un retrato tan fascinante como insólito: el que (probablemente) Juan van der Hamen realizó de Catalina de Erauso vestido de alférez de la marina colonial española en 1626, y que pertenece hoy a la colección Kutxa. Erauso, que nació en Donostia en 1592 y al que se asignó sexo femenino y se dio el nombre de Catalina, es a menudo más conocido como “la monja alférez”, en parte gracias a su autobiografía en la que narra las aventuras de una joven que se escapa del convento “vestida de hombre” y que recorre después como soldado y mercader (bajo los nombres de Francisco de Loyola, Juan Arriola, Alonso Díaz Ramírez de Guzmán... y Antonio Erauso, entre otros) las tierras colonizadas por el imperio español desde Chile hasta México.

### “Uno de los primeros retratos trans”

Tal y como destaca **Paul B. Preciado**, comisario de la exposición, “el retrato de Erauso en hombre podría considerarse como uno de los primeros retratos “trans” de la historia del arte renacentista”, aunque esa noción resulte anacrónica puesto que no existe hasta el siglo XVIII. Pero, matiza, Erauso es, como su retrato, una figura de sombras. “En el fondo totalmente negro del óleo surge un rostro severo, pero de mirada inquietantemente dulce que nada permite calificar como de masculino o de femenino. Su implicación en el genocidio de los mapuches y su posición en el mercado colonial hacen de ella una figura incómoda en la historia trans”. Por eso, la estética de la exposición es, como la del retrato de Erauso, la del claroscuro.

El colectivo artístico Cabello/Carceller ha elaborado para este proyecto un nuevo “retrato” de Erauso, interpelado por una galería de nuevos personajes trans. Esta pieza audiovisual producida por Azkuna Zentroa, ha sido rodada con Doxa Produksioak y cuenta con Alberto sin Patrón como diseñador de vestuario y Mursego en la música.

La exposición se construye a modo de galería analógico-digital de retratos donde Erauso (tanto los retratos históricos de 1626 y su copia, como el nuevo retrato de Cabello/Carceller) se encuentran con otras representaciones de la obra anterior de las artistas entre las que destacan Autorretrato como fuente (2001); Archivo: Drag Modelos (2007-en proceso), Movimientos para una manifestación en solitario (2020), o Lost in Transition\_un poema performativo (2016).

El proyecto expositivo se completa con un programa público de actividades, el catálogo de la exposición y un programa educativo de visitas para todos los públicos.

## CABELLO / CARCELLER

Cabello/Carceller inician su colaboración a principios de los noventa con la intención de interrogar los modos hegemónicos de construcción del género en las prácticas visuales, proponiendo alternativas críticas desde posicionamientos queer. Compaginan el desarrollo de sus proyectos artísticos con la investigación, la escritura, el comisariado y la enseñanza. Su trabajo fue seleccionado en 2015 para el Pabellón Español de la 56 Bienal de Venecia. También se ha mostrado en exposiciones individuales en el MUAC (Ciudad de México, 2019), CA2M de Madrid en 2017, MARCO de Vigo e IVAM de Valencia en 2016, o en centros de arte de Dinamarca, Filadelfia, Madrid, Buenos Aires, entre otros. Sus proyectos se han mostrado además en exposiciones colectivas en el Centre Pompidou de París (2017), MACBA de Barcelona (2020), Tranzit (Bratislava, 2018), Museo da Electricidade (Lisboa, 2015), MNCARS (Madrid, 2013), Casino Luxembourg o Brooklyn Museum de Nueva York en 2007. Forman parte del archivo re.act feminism. A performing archive y están presentes en publicaciones como Art and Queer Culture (Phaidon Press) o el libro de Jack Halberstam The Queer Art of Failure (Duke University Press), así como el prólogo de la versión española de Female Masculinity del mismo autor.

## PAUL B. PRECIADO

Paul B. Preciado es filósofo, comisario de arte y escritor. Internacionalmente conocido por su trabajo sobre las políticas del cuerpo, el género y la sexualidad. Fue becario Fulbright, estudió primero Filosofía y Teoría del Género en la New School for Social Research de Nueva York, donde fue alumno de Jacques Derrida y Agnes Heller, y se doctoró en Teoría de la arquitectura en Princeton University. Ha sido Director de Programas Públicos y del Programa de Estudios Independientes en el Museu d'Art Contemporani de Barcelona, Comisario de Programas Públicos en documenta 14 Kassel y Atenas; y comisario del Pabellón de Taiwan en Venice con la artista Shu Lea Cheang entre otras tareas institucionales. Enseña Filosofía del cuerpo en la New York University, así como otras universidades europeas. Es autor de Manifiesto Contra-sexual; Testo Yonqui, Sexo, drogas y biopolítica; Pornotopía; Un Apartamento en Urano; y Yo soy el monstruo que os habla, todos ellos publicados por Anagrama.

## FICHA TÉCNICA EXPOSICIÓN

*Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans*

**Cabello/Carceller**

**Comisario: Paul B. Preciado**

- Del 10 de marzo al 25 de septiembre
- Sala de Exposiciones. Entrada libre
- Imagen de la exposición: <https://drive.google.com/drive/folders/1P70pfb0-GFk8lwFgQu5YXIYnWG7Y05Kk?usp=sharing>

Colabora:

